



Urkidizar garaile, Perretxiko Lehiaketan

ASTEASU ▶ Antolatzaileak
«gustura», herenegun Azoka
Egunak emandakoarekin

IRABAZLEAK ▶ Olarrea-Goikok
eraman zuen saski sariduna; ardi
txakurren lehiaketan, Orbegozo ▶ 4



Azoka Egunean atondutako barazki postua. JERONIMO OTEGI



J. ASTIBIA

Euriak bustitako mendi eta bizikleta martxa, Plazaolako bideetatik barna

LEITZA ▶ Alfredo Lusarreta eta Ines Donzar korrikalariak izan ziren
irabazle, herenegun, Plazaolako I. Maratoi Erdian ▶ 7

TOLOSA ▶

Herritarren harrera beroa 'Tolosa Kantuan' kontzertu berezian

Ereserkiaren emaitza «oso ona» izan
da, Orfeoiko zuzendariaren ustez ▶ 2



Kontzertuaren une bat. I. T.

GORKA ETXEBERRIA ▶ TOLOSAKO ENTRENATZAILEA

«Gure helburu bakarra
iaz lortutako 13. postua
mantentzea da»

Gorka Etxeberria tolosarra da
Tolosa CF-ko entrenatzaile berria ▶ 3

KULTURA ▶

Festa berezia, urteurrenaren aitzakian

Herriaren «harrera beroa» azpimarratu dute 'Tolosa Kantuan' kontzertuan

IÑIGO TERRADILLOS

Afaloste berezia zuen prestatura Tolosak larunbatean bere 750. urteurrena dela eta, Tolosako Orfeoia, batetik, eta Gorka Knörr, Urko eta Ainhoa Arteta, bestetik, batu zituen *Tolosa Kantuan* kontzertua, hain zuten. Musikaz gozatzeko parada izan zen, bertan, eta baita herriaren himnoa ezagutzeko ere. Hori bai, eguraldi txarragatik lekuz aldatu eta Leidorren egin behar izan bazuten ere, «herritarren harrera beroa» azpimarratu nahi izan dute.

Ignacio Ruiz de Alegria Tolosako Orfeoiko zuzendaria, oso gustura azaldu da kontzertua nola joan zen ikusita; «bihotzarekin eginiko lana izan zela nabaritu zen, eta espero bezala irten zen». Koruko jendearen lana, Enrike Ugarterena, eta Urko, Gorka Knörr eta Ainhoa

Artetak eginikoa azpimarratu nahi izan du Ruiz de Alegria. «Asko gozatu nuen kontzertua zuzentzen, eta hain gureak diren *Bagare* eta *Maitte Maitte* bezalako abestiak asko sentitu nituen; ereserkiaren emaitza ere oso ona izan da, eta eskertu beharra dago, hura kantatzeko parte hartu duten herritarrei, azaldu du Orfeoiko zuzendariak. Bestalde, Zerkausian jarri zuten pantailan, nahiz herriko tabernetan jende askok jarraitu zuela kontzertua, eta babes hori ere eskertzekoa izan dela gehitu du.

Festa goizalderarte

Kontzertua eta gero festak ez zuten etenik izan herriko kaleetan; txarangek eta Plaza Berriko musikak asko lagundu zuten goizalderarte luzatu zen festa berezia animatzen.



Zerkausia. Bertan jarri zuten pantailan kontzertua jarraitzeko jendez bete zen. i. t.



Herritarrak kantuan. Leidor aretoa segituan bete zen, ereserkia kantatu zuten 750 herritarrekin. i. t.



'Tolosa Kantuan'. Tolosako Orfeoia, Gorka Knörr, Urko eta Ainhoa Arteta ikusteko aukera izan zen Leidor berrituaren eskenatokiaren gainean. i. t.

Orixen, ekitaldiz blai

Urteurrena dela eta, Orixen Institutuak ekitaldi bereziak antolatu zituen pasa den asteazkenean. DBHko lehen zikloko ikasleek tribial jokoan hartu zuten parte, eta bitartean, bigarren zikloko Migel Lakunzak Tolosako historiari buruz hitzaldi bat eman zien. Hala ere, batxilergoko ikasleek historia mintegiak prestaturiko ibilbide historiko kulturala egiteko parada izan zuten.

Bestalde, Orixen Institutuko web orriaren eskegiko dute Je-



Migel Lakunza. HITZA

sus Gallego irakasleak, Tolosako historiari buruz prestaturiko lana.



Su artifizialak. Kontzertuaren aurretik su festaz gozatzeko aukera ere izan zen. i. t.



Gau animazioa. Txarangek asko lagundu zuten gaueko festa giroa animatzen. i. t.

iragarki laburrak ▶

Enio
GESTION INMOBILIARIA

San Francisco etort. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-maila: enio@ismoerio.com
www.ismoerio.com

Amezeta, Belauntza, Gabiria, Hernialdea, Ibarra, Villabona-Zizurkil. Hainbat etxe bifamiliarrak, adosatu eta eraikitzeko partzela.
Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarrak salgai. Bista oso onak.
Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzen jartzeko moduan.
Berrobi. Estilo rustikoa (aldizkarietan bezala) 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.
Ibarra. Julian Gayarre. 2 logela, sukaldea, sala eta bainugela.

Berokuntzarekin. Ezin hobeto. 239.805 euro.
Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. 210.355 euro.
Ikaztegieta. Eraikuntza nahiko berriko 170 m²ko duplexa.
Irura. Etxezarreta. 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera.
Leaburu bidean. 600m²ko pabiloia alokairuan, bi solairuetan banatua, 2.500 m²ko zelaiarekin.
Legorreta. Trastelekua salmentan. Bizikleta eta motorrarentzat egokia.

Tolosa. Alde Zaharra. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Hainbat berrikuntza. 168.285 euro.
Tolosa. Beotibar. 36 m². Altua. 150.000 euro.
Tolosa. Berazubi. Berritzeko aukera anitzak. Igogailu proiektua onartuta.
Tolosa. Siervas de Jesus. 3 logela, egongela, sukaldea eta bi bainugela.
Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitzak. 3 eta 4 logela. Terrazak, sukalde ekipatuak. Garajeekin.
Tolosa. Zumalakarregi, 2 etxebizitza. 92 eta 97m². 2 eta 3 logela, sukalde-

egongela, 2 bainugela. Oso ikuspegi ederrak. Guztiz berrituak. Estreintatzeko.
Tolosa. Isaac Lopez Mendizabal. 4 logela, igogailua eta garajea. Egoera onean.
Tolosa. La Estrella. Oso egoera onean. Igogailua eta garajearekin.
Tolosa. Araba Etorbidea. 4 logela, egongela, sukaldea eta bainugela, 25 m²ko trastelekua eta garajea.
Villabona. Kale Berria. Eraikuntza berriari pisu altua. 100 m². Garaje itxiarekin.



AZPIEGITURAK ▶

Tolargik argi mozketak egingo ditu, etzi

Tolargik datorren egunetan argindar mozketak egingo ditu. Instalazioen hobekuntza eta mantenimentu lanak direla eta, etzi, hilaren 21a, 15:00etatik, 17:00etara argirik gabe egongo dira San Frantzisko 1,1 bis, 3,5 eta 7an, eta baita Zumalakarregi 2an ere.

KULTURA ▶

Martxan da berriro ere Topagunea

Udako atsedendialdiaren ostean, Topaguneak iragan irailaren 9an ireki zituen berriro bere ateak, ohiko ordutegiarekin, 16:30etatik 20:30etara. Bertan, informatika-gunea, informazio puntua, futbolina, ping-pong-a, mahai jokuak, tailer-gunea eta abar aurki ditzakete, 13-17 urte bitarteko tolosar gezteek.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarzan autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

GORKA ETXEBERRIA ▶ TOLOSA CF-KO ENTRENATZAILEA

«Gure helburu bakarra iaz lortutako 13. postua mantentzea da»

Jose Manuel Luluagak utzitako lekukoa hartu du orain Gorka Etxeberriak, eta bera izango da denboraldi honetako Tolosa CF-ko entrenatzaile berria



IRATXE ETXEBESTE

ESTI EZEIZA

Bi urtez Tolosako entrenatzaile izan ondoren, Gorka Etxeberria arabiar lurretara joan zen, Lehenengo Mailako Emirerri Batuetako Al Khaleej taldea entrenatzeko. Orain, berriro itzuli da, eta Tolosa CF entrenatzen dihardu. Dagoeneko hiru partida jokatu dituzte, eta hiruretan ere puntu bana lortu dute. Joan den asteburuan Baskoniaren aurka lehiatu ziren, eta 1-1 eko berdinketarekin amaitu zuten norgehiagoka.

Zer moduz joan zen joan den asteburuko partida?

Ongi, gustora. Talde oso ona da Baskonia, azken batean Atlhetik da. Talde gaztea da, baina oso onak dira. Eta gu oso pozik geratu ginen, lehen zatian gu hobeak izan ginelako. Baina bigarren atzetik jarri ginen, beraiek sartu baitzuten gola, eta arriskatzea erabaki genuen. Hala, hiru defentsa jarri genituen eta ongi atera zen. Tolosa aurrera joan zen, golaren bila, berdinketa lortuaz. Handik aurrera, beraiek hasi ziren indartzen. Eta berriro saiatu ginen atzekoa konpontzen, baina hor ia berdinketa ontzat eman genuen.

Orain arteko hiru partidak berdinketan amaitu dituzue. Zer falta da garaipenerako?

Ezer ere ez, pozik gaude. Hiru partidak ere galtzekoak ziren, aurkariak oso onak baitziren. Horregatik, pozik gaude, bakoitzean puntu bat atera dugula. Gainera, nahiko ongi jokatuta, eta sentsazio onarekin. Beraz, inongo arazorik gabe, horrela jarraitzen badugu irabaziko dugu, ez da ezer falta.

Iaz ere ongi hasi ziren?

Bai, lehengo urtean ere ondo hasi ziren, baina gero beherakada izan zuten eta... ezin da konparatu. Aurtengo taldea ikusita, eta etsaiak baloratuta, orain arte oso gustura gaude, irabaztea ere tokatuko zaigu. Liga honetan gu ez gara indartsuenak, eta askotan , berdinketa bat, ona da guretzat.

Aurten, bigarren urtez jokatzen duzue 3. Mailan. Nabari al da diferentzia?

Guretzat kezka garria zen hori. Iaz berrikuntza baitzen hirugarrenean egotea, eta jendeak ilusio handia zuen. Baina aurten ez genuen nahi, jarraipenarengatik-edo ilusio falta egote-rik. Baina hori lortu dugu, aurreboraldi ona egin dugu eta jendea gogotsu dago. Gai-

nera, jokalarik gazteei ere aukerak ematen ari gara, eta jendea gustura dago.

Orokorrean, zer moduz ikusten duzu taldea?

Gurea begiraturaz oso pozik gaude, baina igandero-igandero, etsai oso indartsuak izaten ditugu aurrean. Hala ere, entrenamenduekin, eta jendearen lanarekin oso gustura gaude, taldea indartsu dago.

Eta zein da denboraldi honetako helburua?

Oraingoz, gauden tokian mantentzea. Gure helburu bakarra da iaz lortutako 13. postua mantentzea aurten ere. Hortik aurrera ahal dena egingo dugu. Guk oso apal joan beharra dugu, aurrekontu handia duten talde oso indartsuak baitaude 3. mailan, jokalariek kobratu egiten dute, eta Tolosan berriz ez.

Tolosak, talde bezala, zein berezitasun ditu?

Agian, gaztetasuna, talde arina

dugu, eta gure jokatze modua, taktikoki, horretara egokitu dago. Guk planteatzen ditugun sistemak hori bultzatzeko dira. Orduan, freskotasuna bilatzen dugula esango nuke. **Entrenatzaile bezala, zer da talde batean gehien zaintzen duzuna?**

Beti, baina oraindik gehiago, esan dizudanarengatik, aldagelak zaintzen ditut. Dena taldeari begira planteatzea da gorkoa, bai disziplinak bai jokatze moduak ere; hau da, guztia taldearen arabera egitea. Indibidualitateak soberan daude. Amateur-ak baikara denak, jokalariek ez dute kobratzen, ez daukagu figurarik,... Beraz, dena talde lanean egin beharra dugu, bai aldagelen barruan, eta baita jokatze goraian ere.

Aldaketa asko egin al dituzue taldean?

Jokalarien artean ez, baina kokatze moduan eta bai. Iazko denboralditik asko baloratzen dugun gauza bat taldearen seriotasuna da, eta etsaizako oso zaila zela Tolosari irabaztea. Eta ezaugarri horretatik abiatu gara; hala, horri jarraipena ematen saiatu gara aurretik. Baloiarekin hobeto, arinago eta azkarrago jokatzen saiatzen ari gara, beste ohitura baitzuk hartuaz.

Asteburu honetan Kulturalean aurka jokatuko duzue. Nola ikusten duzu partida?

Egia esan, oso zaila izango da, talde indartsua baita, eta gainera kanpoan jokatzen dugu. Guretzat, kanpoko partidak beti izango dira zailak. Talde handia da, oso zuzen jokatzen dute, bertikal, eta oso gorrak dira. Indar handia dute.



TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

Udalbatzak, 2006.eko irailaren 8an egin zuen aparteko osoko biluruan, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen: E.Z.3 "Gorobel kalearen luzapena" eremuko 2., 3. eta 5. Esekuzio Unitateko apartakaleak eraikitze, eta ustiatzeko lanak adjudikatzeko lehiaketa publikoaren baldintza partikular, tekniko, ekonomiko eta juridiko-administratiboen agiri aldaturatasun orotas.

- 1.- **Helburua:** E.Z.3 "Gorobel kalearen luzapena" eremuko 2., 3. eta 5. Esekuzio Unitateetan lurpeko apartakaleak eraikitzea, eta ustiatzea.
- 2.- **Epea:** Proiektuak: 90 egun natural. Obrak: Hogeieta lau (24) hilabete.
- 3.- **Espedientea ikusgai:** Tolosako Udaltzako Obrak eta Hirigintza Departamentuan. Dokumentazioaren kopia toki hauetan eskura daitezke:
 - Kopia bat (Lizardi olerkaria, 2) Tel.: 943-65-51-66
 - Kopia bat (Samaniego, 1-behea) Tel.: 943-65-40-28
- 4.- **Behin-behineko fidantza:** 80.000,00 € (laurogei mila euro).
- 5.- **Behin betiko fidantza:** aurrekontuaren % 4.
- 6.- **Eskaerak aurkezteko tokia eta epea:** Tokia: Tolosako Udaltzako Sarrera Erregistrazio (Plaza Zaharra, 6-B). Epea: Irizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 15 egun natural. Ordutegia 9:00tik 12:00ak bitartek.

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurilaritza, Udaltzako eta Erakunde

Publikoetan. 943313782.

Harreragileak -Administrari laguntzaileak. behar dira Erakunde Publikoetan. 943313782.

ASTEASU ▶

Olarre-Goikoko zaldiak irabazi du Aiako apustua

ERREDAKZIOA

Asteasuko Olarra-Goiko baserriko zaldiak irabazi zuen herenegun Aian jokaturako apustua eta jokoan zeuden 6.000 euro jaso zituen Aitor Aizpuruak jabeak. Urkiagaren behorrari gailendu zitzaion, honek ordu erdian egindako 64 plazako marka hobetuz.

Ikusmin handia sortu zuen apustuak eta mila lagunetik gora izan ziren, Aiako probalekua goraino betez. Abereak 1.250 kiloko harria mugitu behar izan zuten eta Urkiagaren behorrak 105 kiloko gainkarga eraman zuen.

BIDEGOIAN ▶

2.590 zenbakia, Eztiolaren aldeko jaialdian sariduna

Bidegoiango Eztiola baserriaren aldeko jaialdian egindako zozketaren zenbaki sariduna 2.590 izan da. Bidaniko Jesus Mari Aburuzak eskuratu du saria eta Urrestilako Larrañaga ostatuan afarria eta egonaldia egokitu zaizkio.

IKAZTEGIETA ▶

Txakur-kate bat aurkitu dute Kutturrun

Kutturruko atsedenekuan txakur kate bat aurkitu da, ikaztegiatiko Udalak jakinarazi duenez. Bere jabea udal bulegoetatik pasa daiteke katea jasotzera bulego orduetan, 09:00etatik 15:00etara.

ASTEASU ▶ AZOKA EGUNA



Olarrea-Goiko jatetxeak Josune Aizpuruak eraman zuen enkantean saski sariduna; eskubian, ardi txakur lehiaketako podioa. JERONIMO OTEGI



Urkiagar baserriaren saskia, Perretxiko Lehiaketan irabazle

Olarrea-Goiko jatetxeak eraman zuen enkantean saski sariduna; ardi txakurren lehiaketan Joxe Mari Orbegozo oñatiarra izen zen irabazlea 'Alai' rekin

IMANOL GARCIA

Asteasuko Azoka Eguna berezia izan zen igandekoa. Ohiko postu eta erakusketez gain, berritasunak izan ziren. Eguerdian perretxiko saski ederrenaren lehiaketa egin zen. Urkiagar baserrikoek irabazi zuten saria. Saski sariduna enkantean jarri ondoren, 142 eurogatik Olarra-Goiko jatetxeak eraman zuen. Ardi txakurren lehiaketari dagokionez, Joxe Ramon Orbegozo oñatiarrak irabazi zuen lehia 'Alai' izeneko txakurrarekin.

Gustura azaldu dira antolatzaleak Azoka Egunak emandakoarekin. Ekitaldi bereziak antolatu zituzten aurtengo edizioarako eta lortutako emaitzekin kontent daude. Perretxiko Lehiaketara bi saski aurkeztu ziren. Horrela ikusita partaide gutxi izan zirela dirudi. Antolatzaleek, baina, «perretxikorik ez dagoela eta, inor ez zela azalduko uste genuen. Beraz,

pozik gaude parte-hartzaileak izateagatik». Esan bezala, Urkiagar baserrikoek aurkeztutako saskiak eraman zuen lehen saria. Geroko enkantea «arrakastatsua» izan zela azaldu dute antolatzaleek. «Jende ugari hartu zuen parte eta horregatik azkenean saskia eraman zuenak ordaindutako 142 euroak».

Ardi txakurren lehiaketak ere lehenengo edizioa bete zuen aurtengoan. Zazpi lehiakide hartu zuten parte. Joxe Ramon Orbegozok lortu zuen lehen saria 'Alai' txakurrarekin eta Adunan bizi den Bittor Bengoetxea galdakoa arrakastatsua postua lortu zuen. Euri pixkat egin bazuen ere, ikuslego dexente gerturatu zen bertara.

Bestalde, ez zuten hutsik egin abere erakusketak (100 burutik gora ikusteko aukera izan zuten Asteasura joandakoak); artisauen erakusketak eta frontoian egon ziren baserriarren postuek. Azken leku honetan egon zen ikusgai mikologia erakusketak. 120 perretxiko espezie baino gehiago ezagutzeko aukera izan zuen aurtengo Azoka Egunerako joandako bisitari andanak.



Urtero legez, ganadu erakusketak ez zuten hutsik egin. JERONIMO OTEGI



Mikologia erakusketak ikusmin handia sortu zuen. JERONIMO OTEGI

ALDIZKARIAK eta PRENTSA

ROSS

LIBURUDENDA

Tel.: 943 65 14 73 • S.Frantzisko • TOLOSA

Taberna · Jatetxea

alokatzen da

Alegian

943 65 28 16

629 91 19 36

ZIZURKIL ▶ V. ZALDI LASTERKETA

Josu Kastañaresek irabazi du lasterketa «arrakastatsuenean»

Orain arteko partaidetza handiena, lau hasiberri eta hiru emakume lehian aritzea, arrakastaren arrazoiak



Igandeko zaldi lasterketaren une bat. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo V. Zaldi Lasterketa «arrakastatsuenan» izan zen herenegun jokaturakoa, antolatzaile lanetan aritu den Asier Mujikaren esanetan. Faborittoa zen Josu Kastañares elgoibartarrak irabazi zuen. Proban bigarren aldiz gailendu den zaldun bakarra da, horrenbestez.

Arrakastaren arrazoiak ondorengoak dira, Mujikak azaldu duenez: «16 zaldi izan dira lasterketan, inoiz parte hartu duen kopuru handiena. Horrez gain, lau zaldunek lehenengo aldiz parte hartu dute horrelako proba batean eta hori ere garrantzitsua da. Eta bestea, hiru emakumek hartu dutela parte eta horrek asko poztzen gaitu, zalditegiara batez ere neskak joaten direlako, baina gero lasterketan ez dute hainbestek parte hartzen».

Mujikak Flor Deportalen lasterketa nabarmendu zuen. «Lehenengo aldiz parte hartzen du emakume honek horrelako lasterketa batean eta laugarren egin zuen. Gainera, bere zaldia jauzi probetan lehiatzen dena da eta ez horrelakoetan». Deportala Zizurkilgo Pottok zalditegian irakaslea da. Kastañaresen atzetik sailkatu zirenak Xabin Lazkano getariarra eta Iñaki Garmendia orendaindarra izan ziren. Jende asko izan zen lehiaketa ikusten, eguraldia hain ona ez izan arren. «Zirkuitu honetan abiadura handia hartzen du zaldia, bihurtu gutxi eta azkarrak dituelako. Horrek asko erakartzen du publikoa», dio Mujikak.



Josu Kastañares. I. GARCIA

		MILIOI BAT ARRAZOI DUGU GAUZAK BESTEEK EZ BEZALA EGITEKO.	
		<p>Ez da logikoa. Dagoeneko jorratuta dauden bideez gainezka dago mundua, baina zuk ez diezu horiei jarraitzen. Europako herririk zaharrena gara, eta banda zabaleko konexio gehien duena. Ez da logikoa.</p>	<p>Ez ditugu gauzak beste guztiek bezala egiten. Baina, gaur egun, milioi bat pertsonaren baino gehiagoren konpainia gara. Horregatik, lanean jarraituko dugu, gauzak gutxienez zuk espero bezala egiteko.</p>

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Ibarra, zelaian berriro ere

Larunbatean ekin zion denboraldiari bere zaleen aurrean, 1-1eko emaitzarekin

MADDI SOROA

Ibarra areto futbol taldea zelaian da berriro ere. Udako atsedendialdiaren ondoren, lanari ekin dio, gogotsu eta indartsu, duen guztia emateko prest. Larunbatean ekin zion, hain zuzen, ligako lehen partidari. 18:30ean zelairatu zen taldea, parez pare, mailaz igo berri den Errioxako (Espainia) Gracurris taldea zuela. Emaitza 1-1ekoa izan zen. Etxekoen gola Sinoek egin zuen, Unaien laguntzaz, partidako 16. minutuan. Aurkarien gola, berriz, Alvarok sartu zuen penalti bikoitzaz, partidako 39. minutuan.

Partidaren hasieran etxekoen menderatu zuten jokoa, baloia ongi mugituaz, baina sakonerririk gabe. Horren ondorioz, Ibarrek ezin zuen jokoa amaitu eta aurkarietako nahikoa zitzaizkien defentsa mantentzea, erasorako aukera handirik ez baitzuten erakusten Ibarriko jokalariek.

Partidaren erritmoari dago-



Batzuk joan eta besteak etortzearen ondorioz, hauxe izango da denboraldi berriko taldeko argazkia. M.S.

kionez, «aspergarria eta erritmorik gabekoa» izan zela azaldu du taldeko prentsa ardudun Jose Manuel Tobiasek, bai etxeko taldeari dagokionez, baita errioxarre dagokionez ere. Partidaren izaera lasaiaren arrazoia, liga hasi berritan, jokalarien «ideia falta» izan zen, taldearen ustetan.

Sinoe izan zen 16. minutuan partidako lehen gola sartu zuena, Unaiak ateko marrik eginiko pasearen laguntzaz, porteria erdian kokaturik zegoela tantoa errematatu baitzuen. Lehenengo atsedendia iritsi bitartean, partidaren joerak ez zuen aldaketa nabarmenik izan. Bigarren zatian ekin zitzaionean ere, ez zen jokoa aldatu; izan ere, etxekoen ez zuten sakontzerik lortzen. Aipatu, bi falta egin zituela Ibarrek eta horren ondorioz bost falta metatu dituela dagoeneko.

Partida amaitzeko 10 segundo falta zirela, Gracurriseko Alvarok Unaiak eginiko faltaren penaltiaz berdinketako gola egin zuen. Ligako lehen partidaren, beraz, amaiera txarra izan zuen Ibarrek, izan ere, taldeko ordezkariek zigorra jaso zuen arbitroen eskutik; antza denez, jokalariek publikoaren artean zelairatu zirelako.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Gurrutxaga eta Larreta garaile

M. Soroa ▶ Eguraldi txarrari eta hotzari aurre eginik, Mus Txapelketa jokatu zuten larunbatean, Euskal Herria kalean. Guztira, hamasei bikote aritu ziren, nor baino nor jokoa, garaipena lortzeko asmoz. Iaz baino parte-hartzaile gehiago izan zirenez, antolatzaileak «pozik» agertu dira. Irabazleak, Gonzalo Gurrutxaga eta Koldo Larreta izan ziren eta sari gisa, inskripzioaren %50a eman zuten dirutan. HITZA



BERASTEGI ▶

Informazio jardunaldia bihar, idorrieriari buruz

Kutxa ikasgelak, *Idorriera: nola aurea hartu eta tratatu* informazio jardunaldia antolatuko du, bihar 18:00etan, Nazaret zentroa eta Gipuzkoako Erizain Diplomatuen Kolegio Ofizialarekin batera. Jardunaldia Gaztainondo Jubilatuek elkartean egingo dute eta Xabier Susperregi izango da hizlaria. Ekintza honen helburua sare publikoko Osasun Zentruetara dituzten eginizun eta baliabideak ezagutzera eramatea da. Gogoratu, sarrera doakoa izango dela.

IBARRA ▶

Guraso Eskolan izena emateko azken eguna

Ibarra Gizarte Zerbitzuen Sailak eta Uzturpe ikastolako Guraso Eskola antolatuko dute aurtengoan ere, Maria Jesus Uranga terapeuta eta Ana Elosegia kidearekin batera. Taldeak, haurren adinaren arabera izango dira, guztira hiru talde osatuko direlarik, 0-6, 6-11 eta 11-18 urte bitartekoak. Saiok astelehenera arratsaldetan izango dira eta ordu eta erdiko iraupena izango dute. Izen-ematea udaletxean egin behar da eta bihar da azken eguna.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nf



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ GIZARTEA

JAIONE ASTIBIA

Plazaolako bide berdea, are berdeago zegoen igandean, pasa den asteko azken egunetan egin duen eguraldi lainotsu eta euritsuari zor; giro umel eta berdea egin zuen igandean ere, batez ere eguerdi artean; eta lanbro artean burutu zituzten Europako Natur Bideen Eguneko eta Mugikortasunaren Astearen baitan sartuta, Plazaolan zehar egitekoak ziren bi ekintzak: laugarren edizioa zuen mendi-bizikleta martxa eta aurten lehendabiziko aldiz egin zuten Plazaolako Maratoi Erdia, bigarren hau ekin-tza lehiakorra izan zelarik. Bietan parte hartu zuten kirolariek kementsu egin zioten aurre giroari eta bideari ere.

Mendi-bizikleta martxari dagokionez, hiru irteera-puntu izan zituen. Andoaindik, 40 kilometroko ibilbidea egitera, 180 lagun atera ziren goizean goiz Lekunberrirantz. Erdi-bidean, Leitzako geltokitik, 25 kilometro aldapa gorantz egin ondoren, indartsu, abiada bizian igaro ziren txirridulariak taldeka-taldeka, gehienak ere horretan zailduak izaki.

Leitzatik egin zuten, berriz, familia giroko irteera. Esan, hemendik 130 bat lagun atera zirela Lekunberrira dauden 15 kilometroak egitera. «Beste aldietan baino gutxiago atera dira, eguraldia ikusita jendeak atzera eginen zuen», irizten Plazaola turismo bulegoko antolatzaileek, «bertakoak oso gutxi joan dira, eskuekin kontatuta, normalean, bertakoek egunean ematen dute izena eta oraingoan atera duen eguraldiarekin harritzekoa ere ez da. Badute meritua umeekin-eta bidean jarri direnek». Ildo berean, Lekunberrin ere, ttikientzat prestatutako ibilbidea egitera «35 ume bakarra» atera ziren.

Edozein moduz, «kirola egiteko giro ona» zegoela baieztatu

Eguraldi berdearekin ere, Plazaolako natur bidean arin-arin

IV. Mendi Bizikleta Marxta eta I.go Plazaolako Maratoi Erdia egin ziren igande eguerdiarte, trenbide zaharrea zehar



Telleriko tuneletik ateratzen IV. Mendi Bizikleta Marxtako parte-hartzaile batzuk. JAIONE ASTIBIA

tu zuenik ere izan zen parte-hartzaileen artean. «Lehenko igandekoa baino hobea da haur», adierazi zuen bidean zehar jarrita zeuden anoa-gunetako batean tragoska egiten zuten bitartean.

Lasterkariet dagokionez, berriz, 125ek parte hartu zuten, hauetatik 9 ziren emakumezkoak, Plazaolako 1.go Maratoi



Leitzako estazioetik mordsokaka atera ziren familiak. J. ASTIBIA

SAILKAPENA ▶

PLAZAOLAKO I. MARATOI
ERDIA (21 KM)
Gizonezkoak.

	denborak
1. Alfredo Lusarreta	01.18:08
2. Juanjo Igarzabal	01.19:21
3. Patxi Reklusa	01.19:30

Emakumezkoak.

1. Ines Donzar	01.30:06
2. Marta Gartzia	01.42:01
3. Maria Jesus Silbano	01.45:04

Erdian. «Aurrenekoa izateko kopuru polita, izena aurrez eman behar zelarik, denak etorri dira», adierazi zuten.

«Denbora onak»

Leitzako sagardotegitik hasi eta Lekunberrira, 21 kilometro bidea egin zuten lasterkariak. Eta gizonezkoetan, Alfredo Lusarreta iruñarrak irabazi zuen, bidea ordu bete, 18 minutu eta 8 segundotan egin; aurreneko emakumezkoa Ines Donzar berriandarra izan zen, helmugara ailtzako ordu bete, 30 minutu eta 6 segundo behar izan zituelarik.

«Oso denbora onak» egin ziztuztela baieztatu dute Plazaolatik. «Kontuan hartu behar da, zorua harri-txintzarrezkoa dela, lasterkariko ez da egokiena; eta gero, batez ere Tunel Haundi modura ezagun den Uitziko tunela oraindik berreskuratzeko dagoenez, egunerako argiztatu dugu, baina zoru oso irristalaria zegoen eta horretaz kezatu dira gehienbat lasterkariak».

Horren harira, oroitarazi nahi izan zuten, Tunel Haundia berreskura dezaten eskatuz, sinadura bilketa egiten ari direla-eta (igandean askok egin zuen bezala), oraindik ere herrietako udaletan horren aldeko sinadurak eman ditzaketela herritarrek. Bestalde, eskertu nahi izan zuten, igandean borondatez lanean aritu zirenen ahalegina: «Seinalizazioan-eta lana bazegoen eta gora behera handiegirik gabe, txukun atera zen dena».

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Txakurra. Settter ingeleza arrazako 2 urteko txakurra galdu da; txuria eta gorria, arra. Urre izenekoa. 620 13 49 27 (Elena).

SALGAI

Txakurkumeak. Settter ingeleza (Leveling) arrazako txakurkumeak salgai. Txertatuak. Gurasoak oilagorretan trebeak. Deitu 647 14 40 70era.
Argazki kamera. Nikon D50 reflex digitala, 18-50 eta 50-200 objektiboak, 1 Gb-eko txartelarekin eta poltsarekin. Oso egoera onean. Deitu 600 02 60 85era.

Kotxea. Suzuki Santana. 49 cc, urez hozitutakoa, egoera onean. Telefono zenbakia: 943 652 932 edo 635 20 56 77.
Egurra. Sutarako pago-egur lehorra salgai. Etxera eramaten da. 615 75 57 62.

LANA

Psikopedagogoa. Psikopedagogian lizentziatuak banakako laguntza saioak ematen ditu Tolosan. 670 02 11 22.
Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentukoa. 635 74 52 91.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Lehenko argazkiak ikusgai. Tolosaldeko argazki zaharrek ino osatutako Esperientziak erakusketan dauden argazkietatik batzuk ikusgai daude HITZAKO web-orrian. Dagokion atalean klikatuz, zure ordenagailura deskargatuko da irudi-bilduma tiki bat (pdf modura), ikus ditzazun.


Egunkariak banatu nahi dituzu?

HITZA banatzeko jendea behar dugu,

- Astean sei egun.
- Goizetan.
- Jornada erdiz.

Interesatua bazau, deitu lehenbailehen zerbaki honetara:

943 30 35 55



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Leaburu-Txarama. Bilatu lan bat mintegia izango da, 10:00etatik 12:00etara, KZgunean, bihar.
Ibarra. Hilaren 24ean burutuko den Ibarra, Azoka eta Piparra azokako antolatzaileek Tolosako artisauei parte hartzeko deialdia luzatu die. Izenematea Kultur Etxean.
Tolosa. Aitzol Udal Euskaltegian matrikula egiteko azken eguna. Interesatuak 943 65 10 06 telefono zenbakira.
Tolosa. 'Esperientziak' proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo Orokorrean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Patxi Tenak Kubako plastika eskola batetik ekarritako artelanak ikusgai, Jubilatuen tabernan.
Tolosa. Lanbroa tabernan Charo Berraren artelanak ikusgai.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi ebrea. 112.
Tolosa. Azpiroz, M.L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre irrati

(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. Adi Guri irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. Zaharrak berri.
22:00-23:00. Street.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Txirotik aberatserako bidea

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Etzi amaitzen da zuen argazkiak HITZA Argazki Lehiaketara bidaltzeko epea; sari zoragarriak irabazteko aukera izango duzue



'UR GAINEKO ETXEA' ▶

Larraitz Etxaniz (Villabona)

Larraitz Billabonatarrak Vietnam bisitatu du uda honetan. Hauxe azaldu digu bere oporren inguruan: «Argazki hau Vietnameko Ha Long badian ateratakoa da, badia hau 2000 uhartetox (irlaz) osaturik dago. Bertan ikusten da ur gainean bizi direnxeetako bat (casas flotantes). Harrigarria ezta?».

'ERREGE EROA' ▶

Amaia Zubeldia

Disneyland-en gaztelua dirudi, baina Amaia Zubeldiak azaldu digu zer gaztelu den, bertan izan baita bera udako oporretan. «Argazkian agertzen den gaztelua Neuschwastein gaztelua da *El Castillo del Rey Loco* ere deitzen zaio. Bere inguruan gaztelu gehiago daude baina hau da famatuena. Oso inguru politak ditu baso baten erdian dago. Bertan Luis II (El rey loco) bizi izan zen 170 egunetz, gazte hil baitzen».



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Joxe Manuel Agirre (Tolosa).
60 urte. Zorionak attona! Jarrai zazu urte askoan soinua atezaten.



URTE ASKOAN

Juan Larreta Jauregi (Amezketeta). Gaur 80 urte. Zorionak familaren partetik.



ZORIONAK IGOR

Atzo 4 urte. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



ZORIONAK HARITZ ETA ROXARI

Haritzek gaur 4 urte eta izebak ostiralean zenbat? Muxu potolo bana ebekoan partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea

hitza argazki lehiaketa
bidali argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leizako HITZAren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia

2. saria

ZOKZETA APARTAK

Asteburua Euskal Herriko landetxe batean

Plaza Etxeberri jatetxean afaria

PARTE-HARTZAILA ETA BOTOEMAILE
guztien artean HITZAren mobilta eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira